

Zuia - Gorbeialdea

AURKIBIDEA

HAURREN BERTSOAK

LEGUTIO

3. orrialdea.....Garazi ikastola – 5. maila
4. orrialdea.....Garazi ikastola – 6. maila

URKABUSTAIZ

5. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 5. maila
6. orrialdea.....Izarra Herri eskola – 6. maila

ARAMAIO

7. orrialdea.....San Martin Eskola – 5. maila
8. orrialdea..... San Martin Eskola – 6. maila

ZIGOITIA

9. orrialdea.....Gorbeia eskola – 5. maila
10. orrialdea.....Gorbeia eskola – 6. maila

MURGIA (ZUIA)

11. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 5.A
12. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 5.B
13. orrialdea.....Oroko Andra Mari ikastetxea – 6. maila

ESKUALDEKO BERTSO ESKOLAK

14. orrialdea.....Mapa eta kontaktuak



Garazi ikastola – Legutio
5. maila

Lurra mugituko da
badaude ekaitzak
orri asko egiteko
ez moztu zuhaitzak

Kaletik joatean
hesian kartela,
ez kutsatu itsasoa
oso txarra dela

Natura zaintzea da
garrantzitsuago
animaliak geroz
eta gutxiago

Argia eta ura
mesedez itzali.
Burua erabili
ta berrerabili

Gizaki zikinak ez
zaituztegu maite
beti kotxearekin
baldin bazoazte

Animaliontzako
zuek gure etsai,
errekan zaborrik ez
dugu ikusi nahi

Zaindu beti natura,
betiko maitatu.
Zakarrontzia erabili
eta ez kutsatu!

Natura beti zaintzen
dute oso gaizki,
mendiek garbi egon
behar dute beti

*Ai motxorron!
ezin ezer konpon,
naturarekin bizi eta egon.*



Garazi ikastola – Legutio
6. maila

Bikain pasatzen nago balean
balearekin jolasten
ni etxera ez naiz inoiz joango
eta oso guai pasatzen.
Bikain pasatzen nago balean
eta oso guai pasatzen.

Zure burua ondo badago
jolastera lagunekin!
eta nahiago baldin baduzu
jolastu ahal duzu nirekin!

Beren urpekoa da oso handia
bere izena da Korde,
jendea oso gustura dago
pertsona asko bai daude.
Beren urpekoa da oso handia
pertsona asko bai daude.

Eskerrik asko salbatu nauzu
zuk kartera lehen galdu,
eskerrik asko salbatu nauzu
bikotea bagara gu

Klasera buelta egin ondoren
txintxo eta pozik zeuden,
andereñoarekin bastante
ondo dira eramaten.

Mariano konturatu zenean
bera asko haserretu,
eta guk spring batean joan
gure atzetik segitu.
Mariano konturatu zenean
gure atzetik segitu.



Izarra Herri eskola – Izarra
5. maila

Petrolioia egitean
kutsatzen da ura,
petrolioia erabili
ta galdu natura

Zuhaitzak hiltzen badira
galtzen hor bizitzak,
haizea ez galtzeko
ez moztu zuhaitzak

Kotxea beti dago
jariatzen kea,
zuretzat onena da
oinez ibiltzea

Mendian nahi baduzu
ikusi akerra,
mendian ta zelaian
ez bota zaborra.

Ez dut gustura jaten
goxoki berdea,
Basoan ta mendian
ez bota txiklea

Denok eskatzen dugu
baita ere txoriak,
birziklatu papera,
kartoi ta ontziak.

Ehizarik ez mesedez
ez izan tentela,
animali politek
bizitza dutela

Nik leihotik begira
ikusten dut kea,
Fracking ez egitea
denontzat hobea

Ez izan eskopeta
eskuen artean,
ez hil animaliak
ta utzi pakean

Zurez egiten dira
zure etxeko atea,
ez apurtu zuhaitzak
ezta landareak

Zaindu eta maitatu
mendi ta basoak,
ez izutu mesedez
animalitxoak

Gaizki egiten dute
hartuta kotxea,
ez kutsatu basoa
da gure etxea

Ez bota basoetan
zuen petardoak,
kontuz suarekin, ez
egin barbakoak

Nire kaka ez zapaldu
mesedez basoan,
ez jo animaliak
bere etxetxoan

*Ai zapatzun!
izan nire lagun!
natura zaindu
eta ez izan astun*



Izarra Herri eskola – Izarra 6. maila

Kaixo lagunak zelan zaudete?
gu oso ondo kalean,
seigarren mailan ikasten dugu
ta bizi gara Izarran,
bat hitz egiten eta bestea
jolasean futbolean,
bera hirugarren mailakoekin
jolasean ta hizketan,
bi egunetan bueltatuko gara
agur Arrate ta Kerman!

Kaixo June eta kaixo Oier
zuek zer moduz zaudete?
gu ez gara zuen taldekoak,
oso onak egiten mate,
gu oso hurbil egoten gara
ta bera ez da Arrate,
gu oso ondo ezagutzen gara
genuenetik txupete,
agur June eta agur Oier
ikastolatik gero arte!

Kaixo koadrila! zelan zaudete?
gu ondo goaz Parisera,
Mona Lisa ikusi dugu ta
orain Eiffel igotzera,
ahaztu zaigu portatila etxean
ta PSG ikustera,
frantxuteekin gustura gaude
ez dugu joan nahi etxera,
Agur Ane eta agur Ibai
ta nor garen asmatzera!

Kaixo ___ ta kaixo ___
mesedez ondo pentsatu,
guri pila bat gustatzen zaigu
kalean ondo pasatu,
hemengo bati asko gustatzen
zaio asko bidaiatu,
bati futbola gustatzen zaio
ta besteari dantzatu,
agur ___ ta agur ___
zorte on eta asmatu!

Iepa aupa Ander eta Enaitz
zuek zer moduz zaudete?
guk arraina ez dugu gustuko
ezta ere ahuakate,
askotan erlojua eraman,
ez dugu egin nahi gazte,
niri karatea gustatzen zait
ta ez zaigu gustatzen mate,
muxu handi bat Ander ta Enaitz
agur eta gero arte!

Kaixo orain zuek entzun eta
bestea utzi aparte,
guk gol bat sartu dugu atean
hor bai izan dugu zorte,
gu gaude zuen mahaian eta
beti esaten filete!
mutilak eman ta neskak berriz
futboleant hartu kolpe,
aio Ibai eta aio Eder
agur ta ikusi arte!



San Martin Eskola – Aramaio
5. maila

*Ai mundua
ez zaude zaindua
horrela ez dago bizimodua*

Natura errespetatu
landuz eta nekez,
aizu zikinkeriarik
ez bota mesedez

Zaindu gure mundua
bestela galdua.
Gure bizimodua
dagola zaindua

Ez kutsatu hainbeste
ez digu balio,
errekara ez bota
hainbeste olio

Animaliak utzi
biziko bakean,
espezie bakoitza
bere habitatean

Nire jabeak nahi nau
betiko erotu,
libre izan nahi dugu
kaiolak apurtu

Eskuekin ikutu
tripa eta buru,
zuek bezala guk be
bizitza badugu

Ondo zaindu behar da
gure herriko lurra,
neurrian erabili
papera eta egurra

Hemen inoiz ez dago
betiko bakea,
ez da hain zaila izango
basoa zaintzea

Maitatu eta zaindu
bai gau eta egun,
animaliak ondo
tratatu ditzagun

Korrikan hasi eta
ni berriz kantsatu,
tiro bat bota eta
guri harrapatu.



San Martin Eskola – Aramaio
6. maila

Aitorrek burua ateratzen du
ta Paulinok ditu ikusten,
elur panpina da orain lagun,
tira umeak hasi botatzen.
Aitorrek burua ateratzen du,
tira umeak hasi botatzen.

Ondo pasa ta dirua sobran
zinema hor dago laguna,
txutxeak irabazi ditugu
ai ze luzea eguna!
Ondo pasa ta dirua sobran,
ai ze luzea eguna!

Jende dena korrika irten da
eta bi lagunak ere,
atzetik datoz animaliak
errekara salto trebe.
Jende dena korrika irten da
errekara salto trebe.

Egunon zelan zaudete?
Irratian nago hemen,
komentario barregarri bat:
ezkontza txarto joan zen.
Egunon zelan zaudete?
ezkontza txarto joan zen.

Aimar negarrez, txapela hartu...
Irujo barrez aritu.
Aimar minez ta anbulantzian
ospitalera abiatu.
Aimar negarrez, txapela hartu
ospitalera abiatu.



Gorbeia Eskola – Zigoitia
5. maila

Beti kopiatzen daude
azterketa honetan,
txuleta eskuetan
froga guztietan

Etxera joaten dira
beti jolastera,
pasillotik korrika
atzera eta aurrera

Jontxu, Irati, Unax,
gelako bikiak...
gaztelaniaz daude
klaseko guztiak

Mate, gazte, english ta
txanela ematen...
inoiz ere ez dute
kasurik egiten

Eskolako umeak
ez dira oso trebe
egunero etxerako
lanak egin gabe

Gelara sartu ondoren
denak hitz egiten,
nolako oilategia...
ez dira isiltzen

Zarata egiteko
txirulak dituzte,
musikako orduan
oihukatzen dute

Pasillotik ta gelan
daude oihukatzen,
azaltzen dugunean
beti hitz egiten.

*Ai makatun!
zelako bost egun,
asteburua dago oso urrun*

*Beti berdin
ume guztiekin
mutil ta neskek klasean hitz egin*



Gorbeia Eskola – Zigoitia
6. maila

Eta berataz farre egiten
eta Patrizio etxera.
Aita eta ama galdetzen eta
Patriziok ezetz esan
eta berataz farre egiten
Patriziok ezetz esan.

Bil planetatik esplosioa
eman nahi zuena hitza
baina orain dabilta eta
ikusi nahian dabilta.
Bil planetatik esplosioa
ikusi nahian dabilta

Taberna du aurrean bai horixe!
baina ezin sartu barrura,
bat batean begiratu du ta
kotxearekin zerura.
Taberna du aurrean bai horixe!
kotxearekin zerura.

Lehoiak koska egin dio gaur
belarrien atzetikan...
azkenean borroka horrexek
bukatu du errietan.

Denak zigortu ditu
berriro ere Xabik.
"Zigortuta zaudete
jolasteagatik"



Oroko Andra Mari - Murgia 5.A

Garbitzailea izateko
izan behar trebea,
nik eduki nahi nuke
soldata hobea

Ohitura txarra dute
gela zikintzeko,
"rumba" batzuk nahi ditut
patioa garbitzeko.

Komunetik joan eta
argia itzali,
txisa egin ta gero
bonba erabili.

Lurrean dago dena
busti ta zikina,
patioa lehortzeko
nahi dugu makina.

A ze zikinak diren
hemengo txerriak!
garbitzaileentzako
fregona berriak.

Mahai azpiko txikleak
garbitzeko zailak,
garbitzaileon mezua:
ez margotu mahaiak.

Gu aurrera joaten
ta zuek atzera...
umeez ateratzea
zaborra kalera.

Zaborrik ez kalean
eta ere ez etxean,
zaborra gorde ondo
ez bota parkean.

komunak garbitu ta
guk sufritzen dugu,
usain txarra kentzeko
tuberiak konpondu.

Presakin zoazte ta
txisa egin azkar...
komunean oso ondo
apuntatu behar!

*Ai zapotxen!
Euskara laguntzen
eta patio osoa garbitzen.*



Oroko Andra Mari - Murgia
5.B

*Kutsadura,
airea ta ura,
birziklatzen laguntzeko natura*

Ura ez kutsatu inoiz
hori gogoratu,
astean behin dutxatu
eta ez bainatu.

Kotxea ez mugitu
hori dugu espero,
oinez ta bizikletaz
mugitu egunero.

Gasa ez atera aizu
basoa berdea.
Fracking ez egitea
mundua librea.

Neska eta mutilari
entzun oso adi,
mendian zaborrik ez,
utzi dena garbi.

Arrainak hiltzen dira
ibai ta errekan.
Kutsadura ez da ona
gure basoetan.

Arrantza ta ehizarik ez
mendi ta ibaietan,
animaliek bizi
behar dute bakean.

Ibaiak kutsatuta
daude zikin beti.
Ibai ta itsasoan
ura garbi eduki.

Egon oso oso adi
neska ta mutilak:
ibaietan ez bota
olio botilak.

Entzun behingoz izan fin
kutsadurarekin,
utzi harana lasai,
urtegiak ez egin.

Barbakoak ez egin
zuhaitzen ondoan,
mesedez gizakiak...
surik ez basoan.



Oroko Andra Mari- Murgia
6. maila

Gora euskara!
euskaldunak gara,
denok batera goazen plazara.

Euskal Herriko hizkuntza
euskara maitea,
zu guretzako zara
munduaren atea.

Guztiok hemen gaude
Gorbeiatxo jaitsi....
mendian ta kalean
euskaraz ez etsi!

Egutegian jarri
gure Gorbeiatxo.
Beti euskaraz mintzatu,
gaur bihar eta atzo.

Txikiei lagundu
ikasten jolasa,
Don Makarron prestatu
ta oso ondo pasa.

Txokolatea jaten
mingaina gozatu.
Lagunekin jolasten
ta euskaraz mintzatu.

Eskualdeko bertso-eskolak
2015-2016 ikasturtea

LEGUTIOKO BERTSO-ESKOLA

Legutioko Kultur Etxea
Ortiz de Zarate enparantza z/g
01170 (Legutio)
Kontaktua: Iñaki Lertxundi
Tel: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.eus



ARAMAIOKO BERTSO-ESKOLA

Aramaioko Kultur Etxea
Nardeaga, 36 (Ibarra).
01160 ARAMAIO
Arduraduna: Xabi Igoa
Telefonoa: 945 010505 (ABE)
e-posta: araba@bertsozale.eus

IZARRAKO BERTSO-ESKOLA

Urkabustaizko udala
Udaletxeko plaza
01440 IZARRA
Arduraduna: Manex (euskara teknikaria)
Telefonoa: 945 437080 (Udala) - 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: euskara@cuadrillazuia.com

MURGIAKO BERTSO-ESKOLA

Murgia institutua
Domingo de Sautu, 65
01212 MURGIA
Arduraduna: Unai Mendibil
Telefonoa: 945 010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak) — 688616531



AMAIA ZENTROA
Benito Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.eus
www.bertsozale.eus/araba